

Abenduaren 27ko 17/2012 Legeak, Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak (2012-12-28ko BOE), sartutako zerga nobedadeak.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, hainbat **aldaketa tekniko** sartu dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudian, gehienbat Batasuneko araudia eta jurisprudentzia barruko antolamendura egokitzea beharrezkoa delako.

1. 66. artikulua bidez, BEZaren araudiaren 75.bat artikulua 7. zenbakia aldatu eta 8. zenbaki berri bat sartzen da, **batasun barruko eragiketa jakin batzuen sortzapena** europar araudiarekin harmonizatze aldera.

Beste estatu kide batera zuzendurako ondasun entregak **hornidurak direnean** eta preziorik adostu ez denean edo, bestela, prezioa adostu denean eta horren exigigarritasunaren momentua zehaztu ez denean, edo exigigarritasuna hilabete naturaletik gorako maiztasun batekin ezarri denean, zerga **hil bakoitzaren azken egunean** sortuko da.

Batasun barruko gainerako entregetan, zerga sortuko da eskuratzailerari zuzenduta **ondasunak igortzen edo garraiatzen hasi eta ondorengo hilabetearen 15ean** edo, bestela, **fakturaren luzapen datan, egun hori aurrekoa bada.**

2. 67. artikulua bidez, aldatu egiten dira BEZaren araudiaren 88.bi eta hiru, 89.bi, 163. ter.bat.e) eta bi, 164.bi eta 171.bat.3 artikulua, **fakturazio arloko obligazioak 2010eko uztailaren 13ko 2010/45/EB Direktibara egokitze aldera.**

Desagertu egiten dira “ordezko agiria”-ri (tiketak) buruzko aipamenak; kendu egiten da aldean arteko aurretiazko akordioa idatziz formalizatzea, hartzaileak faktura egiteko baldintza gisa; eta parekatu egiten dira paperezko faktura eta faktura elektronikoa.

3. 68. artikulua bidez, aldatu egiten dira BEZaren araudiaren 20. artikuluko bat apartatuaren 6 eta 12 zenbakiak eta hiru apartatua, **irabazi asmorik gabeko entitateek emandako zerbitzuen salbuespenari buruzkoak**, entitateak salbuespena aplikatu ahal izateko Herri Administrazioak haren izaera soziala **aurrez aitortzeko baldintza kenduta.**

Horrenbestez, salbuetsita egongo dira BEZaren araudiaren 20.hiru artikuluan jasotako beharkizunak betetzen dituzten izaera sozialeko entitate edo establezimenduek emandako zerbitzuak, alde batera utzita aurretik izaera sozialaren aitortzea lortu duten. Beharkizun horiek dira: irabazi asmorik gabeko izatea; lehendakariaren, patronoaren edo legezko ordezkariaren karguek doakoak izatea; eta bazkideak, ezkontideak edo bigarren mailarainoko ahaide odolkideak eragiketen hartzaile nagusiak ez izatea eta zerbitzu prestazioan baldintza berezirik izatea.

Halere, baldintza horiek betetzen dituzten entitateek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote izaera sozialeko entitate edo establezimendu pasibotzat hartzea; kalifikazio horrek Administrazioa lotuko du, salbuespena oinarritzen duten baldintzak eta beharkizunak jarrita dauden bitartean.

4. 69. artikulua bidez, aldatu egiten da BEZaren araudiaren 20.bat.22.a) artikulua, eraikinen bigarren eta ondorengo entregan salbuespenari buruzkoa. Aldaketa honen helburua da **muga bat jartzea salbuespen hori errentamendu finantzarioko kontratuetan baztertzeari**, BEZA bakarrik kontratuek **gutxienez hamar urtetan** irauten dutenean ordaindu beharko da errentamendu finantzarioan aritzen diren erosketako aukera erabiltzen den ekitaldian amaitutako eraikinen entregatik.